

Antolatzailea

ekar

Laguntzaileak

ekar
fundazioa



Elkar Baiona

San Andres plaza • 64100 Baiona

Tf. 05 59 59 35 14 • Faxa: 05 59 59 61 62

baiona@elkar.com • www.elkarargitaletxea.com

VII. LITERATUR
SORKUNTZARAKO
BURTSA
2012

GAZTELUMA



GAZTELUMA

VII. LITERATUR SORKUNTZARAKO BURTSA 2012

OINARRIAK

Baionako **elkar liburudenda**, **elkar fundazioaren** eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin, iparraldeko idazle gazteak euskaraz idaztera lehiatzeko asmoz, **Gazteluma**, **VII. Literatur Sorkuntzarako Burtsa** sortu du.

Bi urtetarik behin antolatuko da eta 3.000 euroko dirutza emanen zaio, epaimahaiak hautatuko duen eleberria edo ipuin bildumaren idazleari ondorengo oinarrien arabera:

- 1 Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin bilduma) egiteko xedeak aurkez litezke, iparraldeko euskara batuan sortuak, beren zati bat edo osotasuna nehon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste nehongo idazlan batetik moldatuak ez direnak.
- 2 Deialdian edonork parte har dezake, 40 urtez petiko adina izanez gero.
- 3 Lehiaketan parte hartu nahi duen gazteak, hiru aldakitan eta bere benetako izena agerian jarri gabe, honakoak bidali beharko ditu bere idazlan egitasmoarekin batera:
 - Landu nahi duen idazlanaren aipamen laburra, 2-4 orrialdekoa, ezaugarri nagusiak agertuz, hala nola, luzera, estiloa, zergatiak, iturriak, egitura, helburua edo egoki idurituko zaion beste edozein xehetasun.
 - Idazlanaren erakusgai edo lagin bat 15-20 orrialdekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.
 - Gutunazal hetsia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta nortasun agiriaren fotokopia.
- 4 Idazlanaren egitasmoa 2012ko urriaren 15erako helbide honetara igorri beharko da:
- 5 Idazlan egitasmo guztiak ikertuko dituen epaimahaia honako lagunek osatuko dute: Eneko Bidegain, Piarres

Aintziart eta Gexan Lantziri; Peio Etxeberrri-Aintziart botorik gabeko idazkari gisa izanez. Talde honek bere hautua 2012ko abenduaren 3a baino lehen plazaratuko du prentsa komunikatu baten bidez. Mahaikide batek bere lana ezin egina balu, haren ordezkoa beste mahaikideek izenda lezakete. Behar bezainbat kalitatezko lanik ez balitz, dirutza eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

- 6 Hautatuko den egitasmoaren idazleak delako diru-kopuruaren erdia, epaimahaiaren erabakia jakinaraztean eskuratuko du, eta beste erdia idazlana argitaratzean. Egileak 2013ko urriaren 3rako lana eman beharko du.
- 7 Irabazleak, izendapena eskuratu eta gehienez urtebete epea izanen du, idazlan amaitua helarazteko. Idazlanaren luzera alde aurretik xehetzen zaila bada ere, liburua osatzeko heina izan beharko du: 75 bat orrialde gutienez. Bitarte horretan, egileak hastapeneko egitasmoa aldatu nahiko balu, epaimahaiakoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespena eskuratu beharko du. Arrazoin berezi batengatik epea gibelatzea onar lezake epaimahaiak.
- 8 Idazleak bere lana helaraziko ez balu edo idazlanaren izaera eta kalitatea, epaimahaiaren iritziz agertu zuen egitasmoaren aldean txarragoak balira, ordura arte eskuratua duen dirua itzuli beharko du.
- 9 Lagundua izan den idazlanaren jabea egilearena izanen da. Alabaina, lan horrek ezingo du beste nehongo diru-laguntzarik edo saririk eskuratu, ez aitzinetik ezta ondotik ere, argitaratu osteko sariak izan ezik. Elkar argitaletxeak 2014ko Sarako azokarako argitaratuko du idazlana "GAZTELUMA" sailean. Bestalde, idazleak bere egile eskubideak ohiko moldean eskuratu ditu.
- 10 Epaimahaiaren erabakiak onartu beharrekoak dira, bai idazlearen bai eta antolatzailearen aldetik.

